# Uztaritze USTARITZ

www.ustaritz.fr
16. HERRIKO INFORMAZIO ALDIZKARIA
BULLETIN D'INFORMATION MUNICIPAL N°16
UZTAILA 2022 / JUILLET 2022

## MAIRIE LAPURDI : LES TRAVAUX COMMENCENT

## HERRIKO ETXE BERRIA, OBREN HASIERA




La vue de la future Mairie à Lapurdi

**Lapurdi eraikinean izanen den Herriko Etxe berriaren itxura**

# AURKIBIDEA / SOMMAIRE


## HERRIKO PROIEKTUAK / PROJETS MUNICIPAUX

Zoom sur le service vie scolaire : enfance / jeunesse et sports ..... 4
Eskola bizitza / haurtzaroa / gazteria eta kirol zerbituza ..... 5
Lapurdi Gaztelondoa proiektua ..... 6
Projet Lapurdi Gaztelondoa ..... 7
Zientzia kultur hezitzaile eta sozial programa ..... 8

## LA FORÊT FAIT ÉCOLE

Oihana eskola bilakatzen ..... 9

## BIDEAK / VOIRIES

Les travaux de réfection continuent ..... 10
Konpontze lanek jarraitzen dute ..... 11

## ESKOLA BIZITZA / VIE SCOLAIRE

Contrat Local d'Accompagnement à la Scolarité ..... 12

## AURREKONTUAK / FINANCES

Budget 2022ko aitzinkontua ..... 13

## TRANTSIZIO EKOLOGIKOA / TRANSITION ECOLOGIQUE

Semaine de la transition écologique ..... 14
Trantsizio ekologikoaren astea ..... 15
Mieux se déplacer / Hobeki mugitu ..... 16
Les enfants et les jeunes d'Uztaritze se sont engagés ..... 17
Uztaritzeko haur eta gazteak inplikatu ziren ..... 17

## KULTURA / CULTURE

Haurtzaro ..... 18

## SOZIALA / SOCIAL

Sport sur ordonnance / Ordenantza bidezko kirola ..... 19

## ELKARTEAK / ASSOCIATIONS

RCUJ ..... 20
Kapito Harri ..... 21

## HERRITARREN PARTE HARTZEA / PARTICIPATION CITOYENNE

Création du conseil municipal de la jeunesse d'Uztaritze ..... 22

## ETXEBIZITZA / HABITAT

Des aides pour l'amélioration de l'hâbitat ..... 23

## LABURRAK / BREVES ..... 24

## OPOSIZIOA / OPPOSITION

Ensemble pour Ustaritz ..... 26
Ustaritz avec bon sens ..... 27

## EGOERA ZIBILA / ETAT CIVIL ..... 28


AURKIBIDEA
SOMMAIRE


**Argitaratze zuzendaria** / Directeur de publication : Bruno CARRERE
**Diseinua** / Mise en page : Harri IDOATE - Izarte Komunikazioa - www.izarte.com
**Inprimategia** / Imprimerie : Imprimerie MARCOS - 64100 Baiona / Bayonne



Bruno
CARRERE
Auzapeza / Maire

Uztariztar maiteak,

Usaiako udako herri aldizkari hau COVID krisiaren bukaeran helarazia zaizue, betirako pandemiatik atera garela itxaropenarekin. Osasun egoera egonkortzen ari denez, uda eta sartzeko aktibitateak normaltasun osoz eramanen ahalko ditugu.

COVID-ak oraindik 2022ko lehen erdi hau trabatu du (adinekoen arratsaskaria ezeztatua, elkarteen praktikak aldatuak,...) baina Hartzaro bezalako zenbait gertakizun nagusi arrakasta handienarekin iragan ahal izan dira.

Bere aldetik, Trantsizio Ekologiko eta Energetikoaren astea lehen aldiz antolatu du herriak. Gure jardueren egutegian molde egonkorrean sarrarazi nahi dugun gertakizun honi esker, hondarkin edo mugikortasunaren arloetan lehen ekintzak abiarazi ahal izan ditugu. Herriko aldizkari honetan aste horren egitarau zehatza atzemanen duzue.

Zenbait gai nagusik datozen hilabeteak markatuko dituzte:

- Aitzineko urteetako mailegu handiago bat egitea ahalbidetutako egoera anitzez hobea agerian jartzen duen Eskualdeko Kontuetako Gortearen behaketa garai bukaerako buxeta.

- Inbestizamendu garrantzitsuak gure eraikinei dagokienez: Arruntzako eskolako teilatuaren berritze osoa uda honetan, herriko etxearen obrak Lapurdi eraikinaren baitan (aldizkariaren segidan azalduak).

- Indar adierazgarria bideen mailan aurten ere: herriko bide desberdin batzuen zaharberritze osoa, RD 350 (Arruntza – Arrangoitze) azken zatiaren bukatzea.

- Gure engaiamenduei jarraikiz, esanguratsua izanen den Trantsizio Ekologiko eta Energetikorako aurrekontua.

Zuei guziei uda ederrena desiratuz.

Chers Uztariztar,

Ce traditionnel bulletin municipal estival vous est adressé en fin de crise du COVID, en espérant que la sortie de la pandémie soit définitive. Du fait de la normalisation de la situation sanitaire, les activités estivales et de rentrée pourront se dérouler de façon normale.

Le premier semestre 2022 a encore été perturbé par le COVID (annulation du goûter des aînés, pratiques associatives modifiées, ...) mais certaines manifestations majeures, comme le festival Hartzaro, ont pu se dérouler avec grand succès.

De son côté, la commune a organisé sa première semaine de la Transition Ecologique et Energétique. Cet évènement, que nous voulons inscrire de façon pérenne dans le calendrier de nos activités, a été l'occasion d'initier les premières actions dans les domaines des déchets ou de la mobilité. Ce bulletin municipal détaille le déroulement de cette semaine.

Les mois à venir seront marqués par plusieurs points importants:

- Un budget de fin de période d'observation de la Cour Régionale des Comptes, qui présente une situation nettement améliorée permettant un emprunt plus conséquent que les années passées.

- Des investissements importants au niveau de nos bâtiments: réfection totale de la toiture de l'école d'Arruntza cet été, travaux de la mairie au sein du bâtiment Lapurdi (décrits dans la suite du bulletin).

- Un effort notable sur la voirie cette année encore: réhabilitation complète de plusieurs voiries communales, fin du dernier tronçon de la RD 350 (Arruntza – Arcangues).

- Un budget sur la Transition Ecologique et Energétique qui sera significatif, conformément à nos engagements.

En vous souhaitant à toutes et tous un excellent été.

# ZOOM SUR LE SERVICE VIE SCOLAIRE / ENFANCE / JEUNESSE ET SPORTS (VSJS)

## Le service VSJS est chargé de mettre en œuvre la politique éducative de la commune. Ce service comprend 4 pôles: les pôles Vie Scolaire, Enfance, Jeunesse et Association.

Ces pôles, qui se situent au centre Mailiarena, sont gérés par une équipe très dynamique dont les valeurs s'inscrivent dans la continuité du PEdT (Plan Educatif du Territoire).

1 **La responsable du service :** Xantal Guilsou c.guilsou@ustaritz.fr ou 06.10.07.47.56

2 **La secrétaire du service** : Florence Olhasque f.olhasque@ustaritz.fr ou 06.12.23.50.18

3 **Le pôle Vie Scolaire** : Martine Fagouet vie.scolaire@ustaritz.fr ou 05.59.93.20.74

4 **Le pôle Enfance** : Sandy Belascain clsh.ekibegia@ustaritz.fr ou 05.59.93.20.74

5 **Le pôle Jeunesse** : Elodie Laffitte espacejeunes@ustaritz.fr ou 06.25.15.35.43

6 **L'info Jeunes** : Sibiam Larrede pij@ustaritz.fr ou 06.26.81.77.31

En route pour les vacances d'été ...!!

Encore de bons moments passés pour les enfants et les jeunes qui ont participé à l'Accueil de Loisirs Sans Hébergement (ALSH) EkiBegia, à l'Espace Jeunes et l'Info Jeunesse pendant les vacances d'avril.

Les enfants et les jeunes de ces structures ont aussi participé à la semaine de la transition écologique organisée du 9 au 16 avril. Ils ont créé des mascottes en matériel de récupération, organisé le nettoyage des berges de la Nive le mercredi et participé à des ateliers cuisine.

Les équipes d'animation avaient réalisé un programme encore riche et varié pour tous ces participants. Les jeunes en classe de CM2 ont eu le plaisir d'être accueillis à l'espace jeunes dans le cadre du projet passerelle pour découvrir le fonctionnement de cette structure avant leur accueil définitif à compter de cet été.

L'Info Jeunesse leur a proposé 2 interventions autour d'un atelier ayant pour thématique les élections et un autre autour de la cuisine. Ils ont également découvert la sérigraphie grâce à l'intervention de Louis, étudiant en art et design. Pour les plus âgés, un stage de PSC1 (Formation aux Premiers Secours) a également été organisé.

Les enfants de l'ALSH quant à eux, sont allés découvrir la plaine d'Ansot et le lac de Saint Pée. Ils ont pu également profiter d'un intervenant qui leur a fait fabriquer et customiser des cerfs-volants. Le groupe des 6 ans a profité des élections présidentielles pour élaborer un projet autour des votes et sur la fabrication d'une mascotte.

**A noter dans vos agendas sans plus tarder:** Un stage de baby-sitting est prévu les 4,5 et 6 juillet ainsi qu'un atelier parents/enfants/ados (renseignements auprès de l'Information Jeunesse à cette adresse pij@ustaritz.fr). Les dates d'ouverture de l'ALSH et l'Espace Jeunes pour cet été : Du lundi 11 juillet au mercredi 24 août inclus.

**Pour plus de renseignements :** clsh.ekibegia@ustaritz.fr pour l'ALSH (maternelle au CM1) et espacejeunes@ustaritz.fr pour l'espace jeunes (du CM2 à la 3ème ).

1


2


3


# ESKOLAKO BIZITZA / HAURTZAROA / GAZTERIA ETA KIROL ZERBITZUA (EBHGK)

## EBHGK zerbitzua herriko hezkuntza politika aplikatzeaz arduratzen da. Zerbitzu honek 4 sail ditu: Eskolako Bizitza, Haurtzaroa, Gazteria eta Elkarteak.

4


5


6


Talde oso dinamiko batek zuzentzen ditu Mailiarena zentroan kokatuak diren sail horiek. Talde horren baloreak bat datoz Lurraldeko Hezkuntza Planarekin.

1. **Zerbitzuburua** Xantal Guilsou: c.guilsou@ustaritz.fr / 06.10.07.47.56
2. **Zerbitzuko idazkaria** Florence Olhasque: f.olhasque@ustaritz.fr / 06.12.23.50.18
3. **Eskola Bizitza saila** Martine FAGOUET: vie.scolaire@ustaritz.fr / 05.59.93.20.74
4. **Haurtzaroa saila** Sandy Belascain: clsh.ekibegia@ustaritz.fr / 05.59.93.20.74
5. **Gazteria saila** Elodie Laffitte: espacejeunes@ustaritz.fr / 06.25.15.35.43
6. **Gazteentzako informazioa** Sibiam Larrede: pij@ustaritz.fr / 06.26.81.77.31

Udako oporretarako bidean...!!

Bazkoko oporretan EkiBegia Aterperik Gabeko Aisialdi Zentroan (AGAZ), Gaztegunean eta Gazte informazio gunean parte hartu zuten haur eta gazteek, momentu zinez goxoak pasatu zituzten.

Egitura horietako haur eta gazteek apirilaren 9tik 16ra antolatu zen trantsizio ekologikoaren astean parte hartu zuten ere. Bilketako ekaiarekin maskotak sortu zituzten, asteazkenetan Errobi ibaiaren bazterrak garbitu zituzten eta sukaldaritza tailerretan parte hartu zuten.

Animazio taldeek egitarau aberatsa eta anitza prestatu zuten parte-hartzaile guzientzat. CM2 klaseko gazteak Gaztegunera joan ziren, egitura honen funtzionamendua ezagutzeko, uda honetatik aitzina behin betiko bertan parte hartu aitzin.

Gazte Info Guneak hauteskundeei eta sukaldaritzari buruzko bi tailer eskaini zizkien gazteei. Serigrafia ere ezagutarazi zien arte eta diseinu ikasle den Louis-ek. Lehen sokorriei buruzko prestakuntza-ikastaroa (PSC1) ere antolatu zen helduentzat.

AGAZ-eko haurrak Ansoteko ordokia eta Senpereko aintzira ezagutzera joan ziren. Haize farfailak fabrikatzen eta pertsonalizatzen ikasi zuten ere. 6 urteko taldeak presidentetzarako hauteskundeak baliatu zituen bozketen eta maskota bat egitearen inguruko proiektu bat garatzeko.

**Zuen burulagunean idatz ezazu, ez ahanzteko:**

Uztailaren 4, 5 eta 6an haurzaintza-ikastaldia eta guraso/haur/nerabe tailerra antolatuko dira (xehetasunak Gazte Info Gunean, heldibe honetan: pij@ustaritz.fr). Uda honetan AGAZa eta Gaztegunea irekiak egonen dira uztailaren 11tik, astelehena, agorrilaren 24ra, asteazkena, biak barne.

**Xehetasun gehiagorentzat:**

AGAZarentzat clsh.ekibegia@ustaritz.fr (ama eskolatik CM1era) eta Gaztegunearentzat espacejeunes@ustaritz.fr (CM2tik 3ra)

# LAPURDI GAZTELONDOA PROIEKTUA

Artikulu bat eskainia izan zaie Lapurdi eta Gaztelondoa egitasmoei joan den urtarrileko hilabetekarian. Zenbait diru arloko eta egutegiko osagaiez osoturik dira osagai nagusiak eta hemen gogora ekarriak.

**Lapurdi eta Gaztelondoa egitasmoen deskribatzea**

Herriko zerbitzuak 5 eraikinatan bananduak izanki gaur egun, hemendik aitzina beharrezkoa zaio Uztaritze izariko herri batean, herritarrei ibilmolde hobea eta zerbitzu hobetua segurtatzen dien zerbitzuen antolaketari lekua uzteko gaitasuna duen herriko etxea izan dadin.

Ondokoak beteko ditugu honela:
- Herriko zerbitzuak ahal bezain bat Lapurdi erakinean bildu
- Gaztelondoa eraikina Sozial gunea bilakarazi

Ondoko moldean aterpetuko ditu zerbitzu gehienak Lapurdi herriko etxeak:

- Etxabean:
  - Publikoari zerbitzu onena eskainiko dion harlekua
  - Mediateka
  - CCAS / LSHZ
  - Polizia Munizipala
  - Eskolen Bizia Gazteria eta Kirolak zerbitzuaren zuzendaritza
- Lehen solairuan:
  - Lapurdi gela
  - Hautetsien bulegoak
  - Zuzendaritza
  - Baliabide zerbitzua (GB eta Finantzak)
  - Komunikazio zerbitzua
- Bigarren solairuan:
  - Zerbitzu teknikoa

Gainera, herriko eraikin guzietara helduko da zerbitzu kalitate hobea bermatuko duen ehun optiko sare « pribatu » bat. Hornikuntza numeriko eta telefonikoak ere berriz ikusiak izanen dira erreaktibotasun eta fidagarritasun handiagoa lortzeko.

- Ondokoak aterpetuko dituen sozial gunea bilakatuko da Gaztelondoa eraikina:
  - L'entraide Saint-Sauveur
  - Etxeko Haurtzainen Gunea (RAM / EHG)
  - Lapurdiko Etxeko Laguntza (ADL / LEL)
  - ANAMACAP elkartea

Zenbait baliabide partekatuko dituzten aitzin aipatu eragileek elkarlanean aritzeko eta egitasmo bateratuak burutzeko gogoa jadanik adierazi dute.

**Lapurdi eta Gaztelondoaren lan egutegiak**

Enpresa guziak hautatuak izan dira eta obrak ekaina hastapenean hasi dira. Lehen aldi batean Gaztelondoako antolaketak gauzatzea izanen da xedea, gaur egun Lapurdin dauden ADL / LEL eta RAM / EHG haien egoitzetan sar daitezen.

Lapurdiko aretoetan ere dauden IDB (euskal dantzako taldeen federazioa) eta Herri Soinu elkarteak aldi berean Lagunen Etxean sartuko dira, elkarte egoitzetik hurbilenean gelditzeko honela.

Lapurdi erakinaren baitako obrek urte bat inguru iraunen dute eta zerbitzuen benetako leku aldaketa 2023ko lehen erdiaren bukaerako iragarria da. Garrantzitsua da zehaztea ere laguntza handiak ekarriak izanen zaizkiola operazio honi, hala nola:

- Zenbateko orokorra: 1 075 065 € ZG
- Estatutik: 370 324 € (DETR / BGLEH-eko dirua)
- Euskal Hirigune Elkargotik: 247 904 € (Laguntzarako dirua)
- Herriko autofinantzatzetik: 456 837 €

## NOUVEAU POLE SOCIAL

Inscrit dans notre programme électoral, le pôle social sera installé à Gaztelondoa à l'issue des travaux qui vont démarrer début juin pour 10 mois environ.

Il hébergera:

- L'Association d'Aides à Domicile du Labourd: service à domicile pour personnes âgées dépendantes ou en situation de handicap.

Le Relais Assistant Maternel: service d'information et d'aide auprès des familles en recherche d'un mode de garde pour leurs enfants

- L'Association ANAMACAP: association Nationale des Malades du Cancer de la Prostate

- L'Entraide Saint Sauveur: association qui assure tous les vendredis la distribution d'aide alimentaire aux personnes en situation de précarité

Ce nouvel aménagement de Gaztelondoa permettra d'améliorer le service de proximité à tous les Uztaritztar et de favoriser les échanges entre ces acteurs sociaux.

# PROJET LAPURDI GAZTELONDOA

## GIZARTE ZENTRO BERRIA

Gure hauteskunde-programan hitzeman bezala, gizarte-zentroa Gaztelondoan jarriko da, ekainaren hasieran abiatuko eta 10 hilabete inguru iraunen duten obren ondotik.

Honako hauek instalatuko dira bertan:

• Lapurdiko Etxeko Laguntzaileen Elkartea: etxez etxeko zerbitzua besteen meneko diren adinekoentzat edo ezinduentzat.

• Haurtzainen etxea (Relais Assistant Maternel): heien haurrentzat zaintza modu baten bila dabiltzan familiendako informazio eta laguntza zerbitzua

• ANAMACAP elkartea: Prostatako Minbizia duten Pazienteen Frantzia mailako Elkartea

• Jondoni Salbatore laguntza elkartea (Entraide Saint Sauveur): ostiralero egoera larrian diren pertsonei elikagai-laguntza banatzen dien elkartea.

Gaztelondoaren berrantolaketak Uztariztar guztientzako hurbileko zerbitzua hobetuko du eta gizarte-eragileen arteko harremanak areagotuko ditu.

Les projets Lapurdi et Gaztelondoa ont déjà fait l'objet d'un article au sein du bulletin de janvier. Les éléments majeurs sont ici rappelés, complétés de quelques éléments financiers et de calendrier.

**Description des projets Lapurdi et Gaztelondoa**

Les services communaux étant actuellement dispersés sur 5 bâtiments, il est désormais nécessaire qu'une commune de la taille d'Uztaritze dispose d'une mairie permettant une organisation des services qui assure un meilleur fonctionnement et bien évidemment un service amélioré aux administrés.

Nous allons ainsi:
- Recentrer au maximum les services communaux dans le bâtiment Lapurdi
- Transformer le bâtiment Gaztelondoa en pôle Social

**La mairie Lapurdi hébergera ainsi la plus grande partie des services de la façon suivante:**

• Au rez-de chaussée:
  - L'accueil organisé pour rendre le meilleur service au public
  - La médiathèque
  - Le CCAS
  - La Police Municipale
  - La direction du service Vie Scolaire Jeunesse et Sports

• Au premier étage:
  - La salle Lapurdi
  - Les bureaux des élus
  - La direction
  - Le service ressources (RH et Finances)
  - Le service communication

• Au second étage: Le service technique

De plus, l'ensemble des bâtiments communaux sera desservi par un réseau «privé» de fibre optique, qui permettra une qualité de service améliorée et garantie. Les équipements numériques et téléphoniques seront également revus pour une meilleure réactivité et fiabilité.

• Le bâtiment Gaztelondoa, deviendra un pôle social qui hébergera:
  - L'entraide Saint-Sauveur
  - Le Relais Assistantes Maternelles (RAM)
  - L'Aide à Domicile du Labourd (ADL)
  - L'association ANAMACAP

Les acteurs précités, qui mutualiseront certains moyens, ont déjà la volonté de collaborer et de réaliser des projets en commun.

**Echéanciers Lapurdi et Gaztelondoa**

L'ensemble des entreprises a été retenu et les travaux ont démarré début juin. Il s'agira dans un premier temps de réaliser les aménagements de Gaztelondoa pour que l'ADL et le RAM investissent leurs locaux, étant actuellement occupants de Lapurdi.

Les associations IDB (fédération des groupes de danse basque) et Herri Soinu, également occupantes de locaux à Lapurdi, seront dans le même temps relogées à Lagunen Etxea, restant ainsi à proximité immédiate de locaux associatifs.

Les travaux au sein du bâtiment Lapurdi vont durer environ un an, et un déménagement effectif des services est espéré à la fin du premier semestre 2023. Il est également important de préciser que cette opération bénéficie d'aides conséquentes, le plan de financement se présentant ainsi:

• Montant total: 1 075 065 € HT
• Etat: 370 324 € (fonds DETR)
• Communauté d'Agglomération Pays Basque: 247 904 € (fonds de concours)
• Autofinancement communal: 456 837 €

# Zientzia Kultur Hezitzaile eta Sozial Programa

Zientzia Kultur Hezitzaile eta Sozial Programari (PCSES/ZKHSP) esker gure mediatekaren bilakaera egitasmo bat zehaztuko dugu. Alde batetik, Uztaritzeko langile eta hautetsi batzuen, eta, beste aldetik, Estatuko (DRAC) Pirinio Atlantikoetako eta Euskal Hirigune Elkargoko zerbitzuen arteko lankidetzan apailatua izan da, kultur elkarte batzuen laguntzarekin.

Kultura Batzordean aurkeztua izan da PCES/ZKHSP eta herriko kontseiluan ekainaren 3an eztabaidatua. Lapurdiren baitan, adierazi egitasmoa eraiki edo antolatu beharreko eremutan gauzatzea ahalbidetuko duen eraikin programazio ikerketa baterako euskarri gisa erabilia da dokumentu hau.

Txostenean, jendetza ederra erakartzen duen gure gaur egungo mediatekak zailtasun nabarmenak pairatzen ditu: hertsiegiak bilakatu diren espazioak, leku eskasa taldeei harrera eskaintzeko eta kultur ekintzak burutzeko, gutiegi balioan ezarri bildumak, langile biziki kartsuak baina kopuru eskasean (3 langile).

2 erronken inguruko garapen plan bat ekoiztu du horrela apailatua izan den PCES/ZKHSP: Hiri Erdi Burguaren erakargarritasunak eta denei eskaini zerbitzu bat hurbil izatea. Hiru ardatzen gainean datza:
- Ekintza handi bat familiaren inguruan,
- Lagun giroaren integrazio areagotua,
- Partaidetza desmartxa bat numerikoa eta irudiaren inguruan.

Lekua paregabea bilakarazteko berezitasunak erakutsi ditu ere ikerketak:
- Euskara
- Musika eta dantza kultur ekintzan sartzea
- Jokoa sozializatze tresna gisa
- Zinemaren sustapena eta komunikabide eta informazioari heztea.

Dokumentu biziki osatua herriko etxearen gunean eskuragarri da (www.ustaritz.fr).



## Programme Culturel Scientifique Educatif et Social

Le Programme Culturel Scientifique Educatif et Social (PCSES) permet de définir un projet d'évolution de notre médiathèque. Il a été élaboré en collaboration entre élus et agents d'Uztaritze d'une part, les services de l'Etat (DRAC), du Département des Pyrénées-Atlantiques et de la Communauté d'Agglomération Pays Basque d'autre part, avec l'appui d'associations culturelles.

Le PCSES a été présenté en Commission Culture et débattu en conseil municipal le 3 Juin. Ce document sert de support à une étude de programmation de bâtiment qui permettra de traduire le projet exprimé en espaces à bâtir, ou à aménager, au sein de Lapurdi.

Notre actuelle médiathèque, dont le rapport souligne la bonne fréquentation, souffre de difficultés évidentes: espaces devenus exigüs, manque de place pour l'accueil de groupes et l'action culturelle, collections peu mises en valeur, personnel très investi mais limité en nombre (3 agents) .

Le PCSES élaboré a ainsi produit un plan de développement autour de 2 enjeux : l'attractivité du Centre Bourg et la proximité d'un service pour tous. Il se déroule sur 3 axes :
- Une action forte autour de la famille.
- Une intégration accrue de la convivialité.
- Une démarche partenariale autour du numérique et de l'image.

L'étude a également démontré des spécificités pour rendre le lieu unique:
- L'euskara.
- L'accueil de la musique et de la danse dans l'action culturelle
- Le jeu comme outil de socialisation.
- La promotion du cinéma et l'éducation aux médias et à l'information.

Ce document très complet est disponible sur le site de la mairie (www.ustaritz.fr).









# DANS 1000 COMMUNES, LA FORÊT FAIT ÉCOLE

Pour sensibiliser les plus jeunes et les associer à la découverte de la gestion de notre forêt, la commune d'Uztaritze a intégré le programme «dans 1000 communes, la forêt fait école» porté par la Fédération Nationale des Communes Forestières.

Le lundi 16 mai, nous avons confié une parcelle du bois d'Uztaritze à l'ikastola Louis Dassance. Cette parcelle d'environ 1 hectare a été choisie pour sa facilité d'accés, son intérêt écologique et parce qu'elle fait partie du plan de relance qui va commencer en ce milieu d'année.

Dans ce programme, les enfants sont acteurs: ils acquièrent des connaissances et les multiples expériences concrètes qu'ils vont mener avec les professionnels de la forêt leur permettront de faire des choix concrets qui auront des résultats pour leur forêt.

Nous tenons à remercier les enseignants de l'ikastola qui, en participant à ce projet, vont permettre à ces enfants de découvrir leur forêt et d'agir sur cet environnement à préserver.

La gestion forestière est une action qui s'inscrit dans le temps. Ainsi, chaque année la parcelle sera transmise à un nouveau groupe d'éléves qui poursuivra le travail engagé.

Gazteenen sentsibilizatzeko eta gure oihanaren kudeaketan elkartzeko, Uztaritzeko Herriak, herri oihanen federazio nazionalak eramandako «dans 1000 communes la forêt fait école» programa integratu du.

Maiatzaren 16an Uztaritzeko Oihaneko lur zati bat Louis Dassance ikastolari utzi dugu. Hektara bat egiten duen lur zati hau hautatua izan da errexki joan daitekelako, bere interes ekologikoarentzat eta urte erditsu huntan hasiko den ber abiatze planaren barne delako.

Programa hortan, haurrak aktore dira: jakintzak eskuratzen dituzte, eta esperientzia konkretuak egiten dituzte oihaneko profesionalekin. Esperientzia desberdin horiek, haien oihanarentzat ondorioak ukanen dituzten hautu konkretuen egiten lagunduko dituzte.

Ikastolako irakasleak eskertu nahi ginuke, proiektu huntan parte hartuz, haurrek haien oihanea ezagutuko dute eta zaindu behar den ingurune huntan eragina izanen dute.

Oihanaren kudeantza denbora behar duen ekintza da. Beraz, urtero, lur zatia ikasle talde berri bati transmititua izanen zaio, hasia den lana segitzeko.

# LES TRAVAUX DE RÉFECTION CONTINUENT

Cette année 2022 verra la fin du gros chantier de la réfection et de l'aménagement de la route d'Arruntza (RD 350) pour 282 000 €.

**Réfection RD350**
Il s'agit de la dernière des 4 tranches annuelles, sensiblement de la même valeur d'investissement que les précédentes. Des trottoirs PMR (Personnes à Mobilité Réduite), une voirie vélo et des ralentisseurs permettent un partage des usages et une meilleure sécurité, depuis le pont d'Arruntza jusqu'à Bordaberria. Au cours de cette année, seront aussi rajoutés 2 ouvrages de ralentissement entre Bordaberria et Mentaberrikoborda, en collaboration avec le Conseil Départemental.

**Le plan de réfection des voiries continue sur toute la commune**
Travaux prévus en 2022 pour une valeur totale de 188 000 €: route de Portua (Arruntza) , chemins de Bereterrenborda et Legarrekoborda (quartier.des Bois), impasse Kurutxeta (Heraitze), chemins Senduraenea et Mota (Xopolo), purges à Leihorrondo (Hiribehere).

Ce mois de mai, des réparations de voiries (ornières, surfaces détériorées, etc..) d'un montant total de 15 000 € ont été faites à:
- Azaburua, Jamotenea, Errekaldea (Arruntza),
- Intha, Erreka biziak, route de la Nive (Heraitze et Orok bat),
- Antonibaita, Bazter Karrika et Jauregia (Hiribehere / Bourg).

En ajoutant le curage des fossés, les interventions sur voiries en urgence et les réfections de peintures sur 40 sites (passage piétons, stop, etc..), le budget total voirie de 2022 s'élève à 573 000 €.

**Eclairage public solaire**
Outre le fait de ne pas consommer d'énergie électrique, ce système permet d'installer des éclairages sur des sites éloignés des réseaux, qui demanderaient normalement des investissement disproportionnés . Trois lampadaires solaires sont en fonctionnement à l'abri bus Harginaenea (Xopolo) , à Haitzekoborda (Etxehasia) et Barraka (chemin de halage d'Heraitze).

**Toiture de l'école d'Arruntza**
Après 4 décennies de bons et loyaux services, la toiture de l'école d'Arruntza présente des faiblesses: une isolation d'avant choc pétrolier , un type de tuiles qui ne se fabrique plus et qu'on ne peut donc réapprovisionner lors de casses, un dessin de toiture complexe avec autant d'étanchéités difficiles à assurer. Tous ces élément expliquent qu'il est urgent d'intervenir sur l'ensemble . Les travaux de la réfection complète de l'ouvrage seront faits cet été pour un budget de 398 000 €.



**Bizikleta Rack-ak**
Bizikleta erabiltzen garatzeko herriko etxeak abian ezarri duen politikari jarraikia, bizikletak segurtasun osoz aparkatzeko uztaiak plantatuak izan dira 24 gunetan auzotegietan gaindi. Bizikleta finkatzeko uztai bat edo biz hornitua da leku bakoitza, bizi guneetatik hurbil diren leku ikusgarrietan (bus geldiguneak, eskolak, gelak, salguneak.)

**Racks à vélo**
Dans la continuité de la politique communale pour le développement de l'usage du vélo, des arceaux pour le stationnement sécurisé des vélos ont été installés sur 24 sites à travers les quartiers. Chaque aire est équipée d'un ou deux arceaux pour fixer le vélo, dans des endroits visibles et proches des lieux de vie (arrêts de bus , écoles , salles , commerces.)

# KONPONTZE LANEK JARRAITZEN DUTE

**RD350 berritze obrak**
Urteroko 4 zatietako azkena dugu hau, guti edo aski aitzinekoen inbestizamendu balio berdinekoa. MUP (Mugikortasun Urriko Pertsona) espaloiak, bizikleta bide bat eta bide konkor batzuei esker erabilera partekatu bat eta segurtasun hobe bat lor daitezke, Arruntzako zubitik Bordaberriara. Urte honetan gaindi, bi bide konkor obra gehituko ditugu Bordaberria eta Mentaberrikoborda artean, Departamendu Kontseiluarekin lankidetzan.

**Bideen berritze planari jarraipen bat ematen zaio herri osoan**
Orotara 188 000 € kostako duten 2022an burutu beharreko obrak: Portuako bidea (Arruntza), Bereterrenborda eta Legarrekoborda bidexkak (Oihaneko auzotegia), Kurutxeta karrika itsua (Heraitze), Senduraenea eta Mota bidexkak (Xopolo), balbulak Leihorrondon
(Hiribehere).

Maiatza honetan, orotara 15 000 € kostatu duten bide konpontzeak (gurpil hatzak, azalera andeatuak, etab…) ondoko tokietan burutuak izan dira:
- Azaburua, Jamotenea, Errekaldea (Arruntza),
- Intha, Erreka biziak, Errobiko bidea (Heraitze eta Orok bat),
- Antonibaita, Bazter Karrika eta Jauregia (Hiribehere / Burgua).

Arroilen garbitzea gehituz, bideetan larritasunez burutu eskuhartzeak eta 40 gunetan egin tindatze lanak (oinezkoen pasabideak, stop, etab,…), bideetako aitzinkondu osoa 573 000 €-koa da.

**Eskoletako argiteria publikoa**
Indar elektrikorik ez kontsumitzeaz gain, sekulako inbestizamenduak eskatuko lituzketen sareetatik urrun diren guneetan argiteriak plantatzea ahalbidetzen du sistema honek. Hiru eguzki karrika argi indarrean dira Harginaeneako autobus aterpean (Xopolo) , Haitzekobordan (Etxehasia) eta Barrakan (Heraitzeko zirga bidean.)

**Arruntzako eskolako teilatua**
Duela 4 hamarraldi ezarria izan ondotik, Arruntzako eskolako teilatua ahulezia batzuk agrtzen hasi da: petrolio krisia aitzineko isolamendua, gehiago fabrikatzen ez den eta beraz hausten direlarik atzematen ez den teila mota bat, teilatu marrazki konplexua segurtatzeko zailak diren hainbat iragaiztasunekin. Osagai guzi hauek erakusten dute zerbait fite egin behar dela honen osotasunean. Obraren berritze lanak uda honetan burutuko ditugu eta 398 000 € kostatuko dute.

> 282 000 € kostako duen Arruntzako bideko (RD 350) berritze eta antolaketa obraleku handia bukatuko da 2022 urte honetan.



# Le CLAS (Contrat Local d'Accompagnement à la Scolarité)

La mairie d'Uztaritze, en partenariat avec la CAF (Caisse d'Allocations Familiales), souhaite mettre en place ce dispositif CLAS à la rentrée scolaire de septembre 2022 à destination des enfants âgés de 6 à 11 ans (CP-CM2) résidant sur la commune d'Uztaritze.

Un questionnaire a été envoyé aux familles d'Uztaritze afin de recenser les besoins de celles qui seraient intéressées par ce projet.

Le CLAS est un dispositif gratuit, visant, en complémentarité de l'école, à fournir l'appui et les ressources dont les enfants ont besoin pour réussir (renforcer la confiance en soi, faciliter la prise de parole, développer des techniques à travers des outils et ateliers ludiques afin d'être plus serein au sein de l'école). Par des activités ludiques et variées, culturelles, manuelles et sportives, le but est d'élargir les centres d'intérêt des enfants, de valoriser leurs acquis pour renforcer leur autonomie personnelle et leurs capacités à participer à des moments de vie collective.

Ce dispositif ne correspond pas à de l'aide aux devoirs mais a vocation, en donnant à l'enfant des outils pour développer ses capacités personnelles, à rendre les moments scolaires et périscolaires plus sereins. Un temps individuel peut toutefois être consacré pour permettre à l'enfant de reprendre une consigne ou leçon qu'il n'a pas comprise ou encore de l'aider dans l'organisation de son travail (tenue de l'agenda, planning de devoirs etc.).

Le lien avec les parents sera privilégié par des échanges réguliers avec les animateurs de ce dispositif. L'accueil des enfants participant au CLAS se fera dans un lieu différent de l'école.

# CLAS-a (Eskolatzeari Laguntzeko Tokiko Kontratua)

Uztaritzeko Herriko etxeak, FLKarekin (Familien Laguntza Kutxa) lankidetzan, CLAS dispositiboa martxan ezarri nahi du 2022ko iraileko ikasturtearen hasieran, Uztaritzen bizi diren 6 eta 11 urte arteko haurrentzat (CP-CM2).

Uztaritzeko familiei galdetegi bat igorri zitzaien proiektu honetan interesa izanen zutenen beharrak identifikatzeko.

CLAS doako dispositiboa da, eta eskolaz gain, haurrek eskolan arrakasta lortzeko behar dituzten laguntza eta baliabideak ematea du helburu (beren buruarekiko konfiantza indartzea, hitza hartzea erraztea, tresna ludikoen eta tailerren bidez teknikak garatzea eskolan lasaiago egoteko).

Jarduera ludiko eta askotarikoen bidez (kulturalak, eskuzkoak eta kirola), haurrei gauza berriak erakutsi nahi zaizkie, haien lorpenak indartu, autonomia pertsonala eta bizitza kolektiboko uneetan parte hartzeko gaitasuna indartzeko.

Dispositibo hau ez da etxeko ikaslanetan laguntzeko laguntza bat, haurrari bere gaitasun pertsonalak garatzeko tresnak ematen dizkio, eskolako eta eskolaz kanpoko jarduerak lasaiago bizi ditzan. Hala ere, banakako denbora erabil daiteke haurrak ulertu ez duen irakaspen edo ikasgai bat berrikusteko edo bere lana antolatzen laguntzeko (burulaguna nola kudeatu, etxeko ikaslanak planifikatu, etab.).

Gurasoekiko lotura gailenduko da, dispositibo honen animatzaileekin trukaketa erregularren bidez. CLAS-en parte hartuko duten haurrak eskola ez den beste leku batean errezibituko dira.

## Ugecam Aquitaine Heraitzeko zentroa

Helduden irailaren 23an Ugecam Aquitaine Heraitzeko zentroak, bere 70 urteak ospatzen ditu. Karia hortara, taldeak proposatzen du bisita gidatu bat, bai egoitza baita ere parkearena. Ez duda eta hurbildu arratsaldeko 14:00etatik goiti !

## Centre Hérauritz géré par l'UGECAM Aquitaine

Cette année, le Centre Hérauritz géré par l'UGECAM Aquitaine fête ses 70 ans. Le 23 septembre prochain, à l'occasion de cette fête, l'équipe de l'UGECAM serait heureuse de vous proposer une visite guidée des locaux et du parc . Visite à partir de 14h.

# 2022ko Aitzinkontua FUNTZIONAMENDUA INBESTIMENDUA

2022. urteko aurrekontua anbizio handikoa eta boluntarista izanen da inbestimenduen arloan, eta, aldi berean, 2014tik honat segitu dugun herriaren zorra murrizteko helburuari eutsiko zaio.

9 MILIOI 2013ko AMAIERAN - 1399 € biztanleko
5 MILIOI 2021eko AMAIERAN - 718 € biztanleko

2022ko hasierako aurrekontua orekatuta da: 6.589.074 € funtzionamenduan eta 6.205.242 € inbestimenduetan.

### Inbestimendu nagusiak 2022an

- Lapurdi zentroko herriko etxe berriaren obrak hastea (600.000 €-ko 1. zatia).
- Herriko errepide-sarea konpontzea eta mantentzea; milioi bat € baino gehiago erabili dira horretarako, 350 bigarren mailako errepidearen azken zatia barne.
- Arruntzako eskolako teilatuak berritzea (398.000 €), Idekiakoak (60.000 €-ko 2. zatia) eta Kiroletako esker paretakoak (269.000 €).
-Tokiko Lur Funtsen Erakunde Publikoaren (EPFL) eskuhartzeari esker, Zuhartzua eta Leihorrondo lursailak eskuratzeko aukera izanen dugu, herriak lurzoruaren kudeatzeko egiten duenarekin jarraituz.
- 145.000 €-ko aurrekontua esleitzea trantsizio ekologiko eta energetikorako.

Proiektu gehienek finantzaketa jasotzen dute (Frantses estatutik, 64 Departamendutik eta Euskal Hirigune Elkargotik), orotara 710.000 €.

### 2022ko funtzionamendua

- Energiarekin lotutako gastuak handitzeko aurreikuspena.
- Soldata kargak kontrolatzea, zerbitzuen beharrak errespetatuz.
- Elkarte-sareari urte "normal" batean eskaintzen zaion diru-laguntzen kopurua ematea.
- 2022. urtean ez dira herriko-tasak emendatuko.
Tasa horiek % 27,80an egonen dira lurzoru eraikian, eta % 39,33an eraiki gabeko lurzoruan.

# Budget 2022 FONCTIONNEMENT INVESTISSEMENT

L'année 2022 sera marquée par un budget ambitieux et volontariste au niveau des investissements tout en gardant pour objectif le désendettement de la commune qui se poursuit depuis 2014 :

9 MILLIONS FIN 2013 – 1399 €/hab
5 MILLIONS FIN 2021 – 718 €/hab

Le budget primitif 2022 s'équilibre en fonctionnement à 6 589 074 € et en investissement à 6 205 242 €.

### Investissements majeurs en 2022

- Démarrage des travaux de réalisation de la nouvelle mairie au centre Lapurdi (1ère tranche de 600 000 €).
- Réfection et entretien de la voirie communale pour laquelle plus d'1 million d'€ sont affectés dont la dernière tranche de la RD 350.
- Renouvellement des toitures de l'école d'Arruntza (398 000 €), Idekia (2eme tranche de 60 0000 €) et du mur à gauche Kiroleta (269 000 €).
- Deux portages fonciers auprès de l'EPFL vont permettre l'acquisition des terrains Zuhartzua et Leihorrondo poursuivant ainsi la démarche communale de maîtrise foncière.
- Affectation d'une enveloppe de 145 000 € à la transition écologique et énergétique.

La plupart de ces projets bénéficient de financements (Etat, Département 64 ou encore Communauté d'Agglomération Pays Basque (CAPB) à hauteur de 710 000 €.

### Fonctionnement 2022

- Prévisions d'augmentation des charges liées à la consommation d'énergie.
- Maîtrise des charges salariales tout en respectant les besoins des services.
- Enveloppe de subventions dédiée au tissu associatif établie en année «normale» .
- L'année 2022 ne connaitra pas de hausse des taux communaux qui se maintiendront à 27.80% pour le foncier bâti et à 39.33% pour le foncier non bâti .

# Semaine de la Transition Écologique

Retour sur la première édition de la Semaine de la Transition Écologique qui s'est tenue du 9 au 16 avril à Uztaritze. Au programme des tables rondes, des ateliers, des portes ouvertes et aussi des témoignages et de l'action !

Encourager l'action et le changement de nos comportements pour accélérer la transition, tel est l'objectif poursuivi avec ce nouveau rendez-vous. Comment ?

- En sensibilisant le plus grand nombre de personnes aux enjeux du développement durable.
- En mettant en lumière des réalisations qui fonctionnent et peuvent en inspirer d'autres.
- En mobilisant autour des projets de la commune.

La première édition a principalement porté sur la réduction des déchets. Elle a permis de mettre en lumière des initiatives d'associations et de collectifs qui s'engagent dans une démarche visant le Zéro Déchet. Ce terme couvre la réduction du gaspillage, le réemploi, la réparation et le recyclage des déchets.

Elle a également servi de fil rouge aux échanges entrepris en 2021 avec l'ensemble des acteurs qui interviennent auprès des enfants de la commune : les directeurs d'école et les enseignants, les agents de la commune qui interviennent auprès des enfants de l'ALSH (Accueil de Loisirs Sans Hébergement) à la médiathèque ou dans les écoles, et bien sûr les parents.

Nous tenons à remercier et à féliciter l'ensemble des acteurs, associations, agents, habitants d'Uztaritze et des environs, pour leur contribution au déroulement et à la réussite de cette première édition.

## Ramassage des déchets à Xopolo

Une quarantaine de personnes a répondu à l'appel de la mairie, de l'Association des Pêcheurs (AAPPMA), du syndicat de traitement des déchets ménagers Bil Ta Garbi. En une matinée, plus d'une tonne de déchets a été ramassée sur les berges de Nive à Xopolo. Beaucoup de plastiques (films noirs, filets, bidons ...) d'objets en tous genres, d'électroménager, de ferrailles... qui n'ont malheureusement pas trouvé tous seuls le chemin des poubelles ou de la déchetterie ... il reste encore du travail: de nouvelles opérations seront organisées dans les prochains mois. L'appel à volontaires sera relancé sur le site de la mairie *www.ustaritz.fr*

## Hondakinen bilketa Xopolon

Berrogei bat pertsonek Herriko etxearen, Arrantzaleen Elkartearen (AAPPMA) eta Bil Ta Garbi etxeko hondakinen tratamendurako sindikatuaren deiari erantzun zioten. Goiz batean tona bat hondakin baino gehiago bildu zen Xopolon, Errobi ibaiaren ertzetan. Plastiko ainitz (plastiko beltzak, sareak, bidoiak, etab.), mota guztietako objektuak, etxetresna elektrikoak, burdineria etab. Zoritxarrez ez ziren zikinontzietara edo hondarkintegira beren kabuz iritsi... oraindik bada lan egiteko: ekintza horiek errepikatuko dira ondoko hilabeteetan. Boluntarioei deia *www.ustaritz.fr* Herriko etxearen webgunean zabalduko da



# Trantsizio ekologikoaren astea

Apirilaren 9tik 16ra Uztaritzen antolatu zen Trantsizio Ekologikoaren Astearen lehen edizioari behakoa. Aste osoan, mahai inguruak, tailerrak, ate idekiak eta ere testigantzak eta ekintza izan ziren!

Hitzordu berri honen helburua, ekintza bultzatzea eta gure ohituren aldaketa sustatzea da, trantsizioa zalutzeko. Nola egin dezakegu?

- Garapen iraunkorraren erronkei buruz ahal bezainbat jende sentsibilizatuz.
- Funtzionatzen duten eta beste batzuk inspiratu ditzaketen lorpenak nabarmentzea.
- Herriaren proiektuen inguruan bizilagunak mobilizatuz.

Lehen edizioa bereziki hondakinen murrizketari buruzkoa izan zen.

Zero Hondakinen norabidean engaiatuak diren elkarte eta kolektiboen ekimenak nabarmendu zituen. Termino horrek hondakinak murriztea, berrerabiltzea, konpontzea eta birziklatzea biltzen ditu.

Halaber, herriko haurrekin jarduten duten eragile guztiekin 2021ean hasi genituen trukaketen hari nagusia izan zen: eskoletako zuzendari eta irakasleak, AGAZeko (Aterperik Gabeko Aisialdi Zentroa) haurrekin, mediatekan edo eskoletan jarduten duten herriko langileak, eta, bistan dena, gurasoak.

Eskerrak eta zorionak eman nahi dizkiegu Uztaritze eta inguruetako eragile, elkarte, agente eta biztanle guztieri, lehen edizio honen arrakastari egin dioten ekarpenagatik.

## A compter du 4 juillet 2022 : du nouveau pour se déplacer

**Nouveau circuit Proxibus L61 à Uztaritze**
Dix mois après le lancement, le tracé de la ligne Proxibus L61 évolue à la demande de la commune, pour desservir Landagoyen, Saint Michel et Etxehasia. Financé par le Syndicat des Mobilités, ce service est en test pour 2 ans (septembre 21 à août 23). Le nouveau circuit, plus long en kilomètres, sera proposé 7 fois par jour du lundi au samedi.

**Nouvelle tarification sur le réseau Txik Txak**
Avec un seul et même titre de transport, il est désormais possible de monter à bord des moyens de transport en commun sur l'ensemble du réseau Txik Txak à travers tout le Pays Basque et le sud des Landes. Ce qui signifie que, par exemple, je peux voyager avec le même ticket depuis Etxehasia jusqu'à Tarnos en empruntant successivement le Proxibus L61, puis la L14 de la Gare Routière d'Uztaritze jusqu'à Bayonne, et enfin le Tram'Bus T2 jusqu'à Tarnos !

A noter : l'inscription aux transports scolaires donne accès au nouveau Pass -28 ans qui permet de bouger en illimité toute l'année pour les cours et aussi les loisirs ! Toutes les infos sur : www.txiktxak.fr



# Mieux se déplacer: la mobilité au cœur de la transition

Les représentants des six comités de quartier se sont retrouvés avec les élus référents pour une présentation d'une étude sur les mobilités réalisée par le cabinet ID CITÉ. Le projet de généralisation des zones à 30 km/h dans les cœurs des quartiers leur a été exposé de façon détaillée.

Le travail de concertation a débuté au sein de chaque comité de quartier afin de formuler des propositions. La deuxième étape s'est déroulée le 14 juin avec une réunion publique dont l'objectif était de présenter le plan communal de mobilité durable et sa première étape avec la zone à 30 km/h généralisée au début de l'automne 2022.

Ceci est la première réalisation de la politique de mobilité durable: en réduisant la vitesse on facilite la cohabitation apaisée des piétons, cyclistes et automobilistes.

Élus et représentants de l'Organisme de Gestion de l'Enseignement Catholique (OGEC) St François Xavier et de la Communauté d'Agglomération Pays Basque (CAPB) ont visité le réseau de chaleur de Mauléon et la plateforme de valorisation de biomasse Loreki. Ce fut l'occasion de se rendre compte de ce qui pourrait être mis en place à Uztaritze.

A l'invitation de la mairie et de Bil Ta Garbi, une soirée a permis de réunir les bailleurs sociaux présents sur la commune et des Uztariztar résidant en habitat collectif. Les différentes solutions de compostage de déchets verts disponibles lorsqu'on vit en appartement ont été présentées. La démarche va se poursuivre.

Si vous êtes intéressés par l'installation d'un composteur collectif dans votre résidence, vous pouvez contacter: Le bailleur ou le syndic de copropriété de votre résidence ou Valérie Merienne, maître composteur à Bil Ta Garbi: 06 79 34 11 26 - valerie.merienne@biltagarbi.fr

Diverses animations ont eu lieu pendant la semaine:
- Portes ouvertes aux Jardins Familiaux.
- Atelier apiculture avec Les Amis de la Forêt.
- Présentation du projet de création de l'épicerie participative Arruntzakoop.
- Fonds documentaires spécial Transition et Zéro Déchet à la médiathèque.
- Marché et Pique-nique Zéro Déchet.

# Hobeki mugitu: mugikortasuna trantsizioaren bihotzean

Sei auzo-batzordeetako ordezkariak hautetsi erreferenteekin bildu ziren ID CITÉ kabineteak mugikortasunari buruz egin azterlanaren aurkezpenean. Auzoen bihotzean 30 km oreneko eremuak orokortzeko proiektua zehatzki aurkeztu zitzaien.

Kontzertazio lana auzo-batzorde bakoitzean abiatu zen, proposamenak egiteko helburuarekin. Bigarren etapa ekainaren 14an gauzatu zen, bilkura publiko baten bidez. Orduan Herriko etxearen mugikortasun iraunkorraren plana eta haren lehen etapa, 2022ko udazkenaren hasieran orokortuko den 30 km oreneko eremua, aurkeztu ziren.

Hau da mugikortasun iraunkorreko politikaren lehen gauzatzea: abiadura murriztean, oinezkoen, txirrindularien eta autogidarien arteko elkarbizitza baketsua errazten dugu.

Hautetsiek eta Irakaskuntza Katolikoko Kudeaketa Erakundeko (OGEC), San Frantzisko Xabier ikastetxeko eta Euskal Hirigune Elkargoko (CAPB) ordezkariek Mauleko berokuntza sarea eta Loreki biomasa balorizatzeko plataforma bisitatu zituzten. Uztaritzen zer egin zitekeen ikusteko aukera paregabea izan zen.

Herriko etxeak eta Bil Ta Garbik gonbidaturik, herriko gizarte alokatzaileak eta etxebizitza kolektiboetan bizi diren Uztariztar batzuk bildu ziren arrats batez. Apartamentu batean bizi denean eskuragarri diren hondakin berdeak konpostatzeko aterabideak aurkeztu ziren.

Zuen egoitzan konpostagailu kolektibo bat ezarri nahi baduzue, jar zaitezkete harremanetan egoitzako alokatzailearekin edo jabekidetasunezko sindikuarekin. Valérie Merienne, Bil Ta Garbin Konpostatzean aditua: 06 79 34 11 26 - valerie.merienne@biltagarbi.fr

Astean zehar hainbat animazio antolatu ziren:
- Ate idekiak familia baratzeetan.
- Erlezaintza-tailerra "Les Amis de la Forêt" elkartearekin.
- Arruntzakoop, janari saltegi parte-hartzailea sortzeko proiektuaren aurkezpena.
- Trantsizioari eta Zero Hondakinei buruzko funts dokumental bereziak mediatekan.
- Merkatua eta Zero Hondakin Piknika.

## Les enfants et les jeunes d'Uztaritze se sont engagés

- Visite menée par les élèves de l'option nature au collège St François Xavier.
- Ramassage de déchets par les ados de l'espace jeune.
- Atelier parents-ados-enfants au IJ (Information Jeunesse) avec l'association Bio Divers Cité pour découvrir le lombricompostage et s'initier à la cuisine Zéro Déchet.
- Créations d'œuvres sur le thème du Zéro Déchet exposées à Lapurdi par les enfants de l'école d'Idekia, de l'IEM (Institut d'Education Motrice) d'Heraitze et du Centre de Loisirs.
- Collecte des déchets à recycler dans les écoles (piles, gourdes, etc.).

## Uztaritzeko haur eta gazteak inplikatu ziren

- San Frantzisko Xabier ikastetxeko natura hautuzko ikasgai duten ikasleek bisita eraman zuten.
- Gazteguneko nerabeek hondakinak bildu zituzten.
- GIn (Gazteentzako infogunea), guraso-nerabe-haurrentzako tailer bat antolatu zen, "Bio Divers Cité" elkartearekin, zizare konpostatzea ezagutzeko eta Zero Hondakin janaria prestatzen ikasteko.
- Idekia eskolako, Heraitzeko MGZako (Medikuntza eta Gizarte Zentroa) eta Aisialdi Zentroko haurrek Zero Hondakinen inguruko obrak sortu zituzten eta Lapurdi gelan erakustera eman zituzten.
